



EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA



Gizarte-klausulak, gizarteratzearen eta laneratzearen zerbitzurako tresnak

Laguntzailea:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Connection for
Social Innovation



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratze eta Laneratze
Euskadiko Enpresen Elkarte



ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria



EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA



Gizarte-klausulak,
gizarteratzearen
eta laneratzearen
zerbitzurako tresnak

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria

Ekain Kobak 3, 1 • 48005 Bilbo
Tel.: 944 160 566 • Faxa: 944 156 319
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

L.Z.: BI-3335-2010

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Arabako Foru Aldundiak REAS Euskadirekin duen lankidetzatza hitzarmenaren esparruan batera finantzatutako argitalpena.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka.

Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



Aurkibidea

1.	Sarrera	5
2.	Zer da erosketa publiko arduratsua?	6
3.	Zer dakigu gizarte-klausulei buruz?	8
4.	Gizarteratze eta laneratze enpresek herri-administrazioari itzultzen dioten kopuru ekonomikoa	9
5.	Kontratazio publikoaren eta gizarte-klausulen esparruko araudia	10
6.	Nola txertatu gizarte-klausulak herri-administrazioan?	12
	a. Hitzarmenaren xedea definitzea	12
	b. Merkatu erreserba, kontratu txiki eta prozedura negoziatuen bitartez	16
	c. Lizitatzailleak onartzeko fasea (kontratuaren xedearen arabera, kaudimen teknikoko baldintza gisa)	19
	d. Puntuazio fasea (balorazio irizpide gisa)	22
	e. Lehentasun irizpidea, baldintza-berdintasun kasuan	24
	f. Betearazpen fasea (derrigortasun irizpide gisa)	26
7.	Gehiago jakiteko	28



1. Sarrera

Erosketa publiko arduratsuak irizpide etikoak, ingurumenekoak eta sozialak zeharka barne hartzea planteatzen du, kontratu publikoak esleitu eta gauatzeko orduan. Arrazoi nagusia begi bistakoa da: ez da batere logikoa aurrekontu publikoak ematea kutsatzen duten enpresei, langileen eskubideak errespetatzen ez dituztenei, genero diskriminazioa egiten dutenei edota administrazioak berak langile minusbaliatuak edukitzeko ezartzen duen %2ko kopurua ez betetzea.

Aitzitik, kontratuak eta fondo publikoak gizarte-kohesioa eta ingurumen iraunkortasuna samurtzen duten enpresen alde egitea koherentea da. Beharrezkoa da, horrenbestez, herri-administrazioek, euren kontratuak esleitzean, gizarteratzea eta laneratzea, bidezko merkataritza edo kalitatezko enplegua ahalbidetzen dituzten neurriak hartzea. Ez da politika erresiduala, garrantzi kuantitatiboa duen politika baino, izan ere, erakunde publikoak dira Estatuko lehen enplegu-emaileak eta kontsumitzaileak garrantzitsuenak, eta ondasunak, lanak eta zerbitzuak kontratatzen dituztenean, barne produktu gordinaren %16 baino kopuru handiagoa lortzen da.

Sektore Publikoko Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legeak legez gaitzen du kontratazio publikoetan irizpide sozialak sartzea, eta, gainera, beren-beregi aipatzen ditu pertsona eta kolektibo erdeinatuak. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, auzi hau ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpenak indartzen du, Gobernu Batzordeak “Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta bere sektore publikoan, irizpide sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak ezartzearen” gainean hartutako akordioari buruzkoa. Akordio honek gizarte klausula jakin batzuk biltzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzako sail, enpresa publiko eta erakunde autonomiadun guztietan ezinbestean ezarri behar dira; bidenabar, gainera, erreferentzia interesgarria da tokiko administrazioentzat.

Egungo testuinguruak, beraz, amaitutzat eman ditu gizarte-klausulen legezkotasunari buruzko digresioak, eta edozein aurkakotasun juridikok eta teknikok ez du dagoeneko zentzurik. Horregatik, bada, beharrezkoa da etengabe aurrera egitea, gure herri-administrazioek gizarte-bazterketaren kontrako tresna moduan erabil ditzaten kontratuak.¹

¹ “Gizarte-klausulak eta kontratazio publiko iraunkorra” txostenean oinarrituta. Santiago Lesme, Gitate.doc-en, 30. zenb., 2009ko otsaila.



2. Zer da erosketa publiko arduratsua?

Kontratazio publikoaren prozesuetan eta faseetan alderdi sozialak, etikoak eta ingurumenekoak aintzat hartzean datza Erosketa Publiko Arduratsua. Gisa horretan, aintzat hartu daitezke produktua edo enpresa hornitzailearen ezaugarri tekniko sozialak, etikoak eta ingurumenekoak, betiere, prezioaren eta produktua kalitateari kalterik egin gabe, ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko orduan.

Bere edukia hainbat ikusmolde biltzen ditu, hala nola, erosketa publiko etikoa, erosketa publiko berdea eta erosketa publiko soziala, bere ezaugarriak, oinarriak eta helburuak jasotzen baititu.



- **Erosketa publiko etikoak**² lan, hornidura edo zerbitzuen kontratu publikoei egiten die erreferentzia, hain zuzen ere, besteak beste, laneko baldintza duinen, gutxieneko ordainsarien, langileen eskubideen alde eta haur-lanaren kontra borrokatzeko, arauak eta eredu etikoak betetzeko irizpide etikoak barne hartzen dituztenei. Gisa horretan, lehenasuna izango dute irizpide eta eredu zorrotzenen (bidezko merkataritza edo banka etikoa kasu) alde egiten duten enpresa hornitzaileen erosketek.
- **Erosketa publiko berdea**³ ondasunak eta zerbitzuak erostean datza, baina ez bakarrik produktu, zerbitzu edo lanen irizpide ekonomiko edo teknikoak kontuan hartuz, baita horiek ingurumenarekiko duten jarrera ere kontuan hartuz. Ingurumen alderdiak baliatutako edo eskuratutako material edo produktuekin daude erlazionaturik, bai eta kontratuen betearazpenaren metodo eta prozedurekin eta hornitzaile nahiz fabrikatzaileek ingurumenarekiko duten jarrerarekin ere.

² Bidezko Merkataritzarako Gida Euskadiko herri-administrazioentzat. Emaús Gizarte Fundazioa, Bakeaz eta Setem Hego Haizea (2007).

³ Kontratazio eta erosketa publiko berdearen gidaliburu praktikoa: Euskadiko herri-administrazioak ezartzeko ereduak eta adibideak. HOBE, Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa (2007).

- **Erosketa publiko sozialak** hainbat alderdi hartzen ditu aintzat, hala nola, enplegua, genero ikuspegia, minusbaliotasunen bat eta gizarte-bazterketa egoerak dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen kontratazioa edota gizarteratze nahiz laneratze enpresen edo enplegu zentro berezien azpikontratazioa.

Hala, erosketa arduratsua egiteko erabakiak ez dira eskatutako produktua edo zerbitzua zertarako jakin baterako kontratatzen mugatzen; metodoarekin eta ekoizpen baldintzekin, osatzen duten materialekin, langileen lan baldintzekin edota ekoizpenak edo prestazioak epe laburrera edo luzera eragiten dituen zuzeneko edo zeharkako ondorioekin erlazionatutako bestelako alderdi batzuk ere aintzat hartu behar dira. Erosketa arduratsuekin, herri-administrazioek balio erantsia ematen diete kontratazio prozesuei, eta aurrekontua modu eraginkorren kudeatuz, behar bat asetzeaz gainera, euren politikak baino haragoko helburuak betetzen dituzte.

Botere publiko batek kontratu bat esleitzen duen bakoitzean, ondorio bat eragiten du merkatuan eta inguruan; horrenbestez, inkongruentzia izango litzateke lan, hornidura edo zerbitzuen kontratazioak eragingo litzuzkeen ondorioak alde batera uztea. Zenbaitetan, zoritxarrez, kontratazioak berak edo zerbitzuak kanporatzeak izan ditzaketen ondorioetako batzuk honakoak izan daitezke: enplegu ezegonkorra, gaizki ordaindua, ezbehar-kopuru handiak edo enplegu bat edukitze zailtasunik handienak dituzten pertsonen aukera desberdintasun kopuru altua edukitzea. Hala eta guztiz ere, ahalegin apur batekin, ondorio neutroa edo negatiboa eragin positibo bihurtu eta aise antzeman ahal izango da. Horregatik, bada, uste dugu kontratazio publikoak helburu sozialak, etikoak eta ingurumenekoak bilatu eta aintzat hartu behar dituela, gizarte-kohesioan eta komunitatearen onerako diharduen tresna eraginkor gisa.

Zinez, kontratazio publikoak bere printzipio etikoak zaindu ahal eta behar ditu erabat (konkurrentzia askea eta diskriminazio eza), baina bestelako printzipio eta helburu sozialak, etikoak eta ingurumenekoak ere barne hartu behar ditu. Horiek uztartzea ez da zilegizkoa bakarrik: koherentea ere bada, antolamenduari printzipio gidariekin; eraginkorra ere bada, kontratazioaren aurrekontua optimizatu egiten baita xede jakin bat duten ekintza batzuetarako; txalogarria ere bada, gizarte-kohesioan aurrera egiten baita; sinergikoa ere bada, ondorio anitz izango dituen ekintza baita; eta, orobat, onuragarria ere bada, ekonomiarentzat eta gizartearentzat.



3. Zer dakigu gizarte-klausulei buruz?

Gizarte-klausulak kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikako alderdiak txertatzean dautza, eta, bereziki, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak kontratatzeke sustapenean, euren gizarteratzea eta laneratzea errazteko asmoarekin. Gizarte-klausulak kontratazio publikoko prozesuetan txertatzea alde aurretiko baldintza gisa (Onarpen Irizpidea eta Merkatu Erreserba), balorazio elementu gisa (Esleipen irizpidea) edo kontratuari datxekion bete-behar gisa (Betearazpen faseko baldintza).

Gizarte-klausulak kontratazio publikoan sartuz gero, administrazioak ekonomian duen indarra areagotzen da, politika publikoen arteko koherentzia handitzen da eta erosketak publiko etiko, iraunkor eta arduratsua bermatzen da.

Gizarte-klausulen helburu bikoitza

- Gizarteratze eta laneratze enpresei merkatua eskaintzea (gizarteratze enpresak, gizarte-ekimeneko kooperatibak, enpleguko zentro bereziak edo antzekoak), gizarteratzeke enpleguak sorrarazteko.
- Irabazi asmoko enpresa arruntak gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratze prozesuetan nahastea (bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen kontratazioa behartzea).



4. Gizarteratze eta laneratze enpresek herri-administrazioari itzultzen dioten kopuru ekonomikoa

Gizarteratzeko eta laneratze enpresatzat, Eusko Jaurlaritzako 182/2008 dekretuaren arabera, *“honako ezaugarri hauek dituzten ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak hartzen dira: gizartean baztertuta edo desabantailan dauden taldeak lan-merkatuan sartzeko helburua dutenak, eta, gainera, gizarteratzeko banan banako proiektuak egiten dituztenak, ikasketa prozesu egoki baten bidez, eta prozesu horrekin, enplegarritasunaren baldintzak hobetzen laguntzeko trebetasun sozialak, laneko trebetasunak, oinarrizko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuari buruzko ezagupenak barne hartzen dituztenak”*.

Finean, enpresa hauek gainerakoetatik ezberdintzen dituen ezaugarri nagusia zera da: **zailtasun bereziak dituzten kolektiboak enplegu normalizatua edukitzea ahalbidetzea, denbora jakin batez laguntza eskatuz eta lanpostu baten egitekoa gauzatuz**. Hori da, hain zuzen ere, enpreson balio erantsia, beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide teknikoekin kalitatezko zerbitzuak eskaintzeaz gain.

Helburuak bete daitezzen errazteko, gizarteratzeko eta laneratze enpresek herri-administrazioen diru-laguntzak jasotzen dituzte; enpresek, era berean, dirua itzultzen diete administrazioei, eta, hala, gizarteari ekarpen soziala egiteaz gainera, ekarpen ekonomikoa ere egiten diote.

Egindako ikerketen arabera, Gizarteratze Enpresek diru-laguntza gisa jasotzen duten kopuruaren ehuneko altu bat itzultzen diete administrazioei gizarte segurantzaren, kontingentzia komunen eta langabeziaren bitartez, baita BEZ nahiz Sozietateen gaineko Zerga bezalako zergen bitartez ere.

Horretaz gain, gizarteratze enpresek dirua aurretzen diote administrazioari, hain zuzen ere, gizarte-laguntzak (diru-sarrerak bermatzeko errenta kasu) jasotzen dituzten baztertutako edo bazterketa egoeran dauden pertsonak merkatuan lan egitera sartzen dituztenean, izan ere, modu honetan, bestelako laguntzak jasotzeari uzten diote.



5. Gizarte-klausulen esparruko erreferentziatzko legeria

Europar Batasuna: 2004/18/CE Zuzentaraua, martxoaren 31koa, lan, hornidura eta zerbitzuen kontratu publikoen esleipen prozeduren koordinazioari buruzkoa.

Estatu espainiarra: 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa (EAO, 261. zenb., 2007ko urriaren 17a). Erreferentziatzko artikulua.

- **Kontratu erreserbatuak:** Zazpigarren xedapen gehigarriak enplegu zentro berezietan kontratuak esleitzea ahalbidetzen du, eta gizarteratze eta laneratze enpresei aplikatzen zaie analogiaz.
- **Esleipen irizpideak:** 134. artikulua arabera, “beharrei erantzuten dieten gizarte-eskakizunak betetzearekin erlazionatutako [...]” ezaugarriak baloratu ahal izango dira, “bereziki erdeinatutako biztanleen kategorietan”.
- **Lehentasun irizpideak:** Seigarren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraiki, kontratu publikoak esleitzeko orduan lehentasuna izango dute minusbaliotasunen bat duten pertsonak kontratatzen dituzten enpresak, “gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea berariaz sustatzen duten enpresak”, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta bidezko merkataritzako erakundeak. Erreferentzia hori esanguratsua da oso, izan ere, gizarteratze eta laneratze enpresak aipatzen ditu beren-beregi, eta, adierazten duenez, kontratuak lehentasunez esleitzen zaizkie.
- **Betearazpen baldintzak:** 102. artikulua kontratazio organoetako baldintza bereziak ezartzeko baimena ematen die, batez ere, “gizarte-izaerakoak, laneko merkaturan sartzeko zailtasun partikularrak dituzten pertsonen enplegua sustatu, lan merkaturan gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasunak ezabatu, langabeziari aurre egin, lantokian prestakuntza erraztu edota Europar Batasuneko Itun Osagarriaren 125. artikuluan zehaztutako enplegurako estrategia koordinatuari buruz ezartzen diren bestelako helburuak gauzatzeko”.

Euskal Autonomia Erkidegoa: 6/2008 Ebazpena, ekainaren 2koa, Herri-administrazioaren eta sektore publikoaren kontratazioetan irizpide sozialak, inguru-menekoak eta beste politika publikoetakoak aintzat hartzei buruz gobernu batzordeak hartutako erabakiarena (EHAA, 116 zenb., 2008ko ekainaren 19a).

- **Enplegu zentro bereziei** gizarteratze eta laneratze enpresei edota babestutako enplegu programa betearazteari erreserbatutako kontratuak. IV. atalarekin bat etorriz, praktikan, Autonomia Erkidegoko estruktura guztiek eta bere sektore publikoek xede horretarako urtero erreserbatu behar dute Ogasun Sailak edo gizarteratze eta laneratze esparruan eskumena duen sailak finkatzen duen kopuru ekonomikoa, enpresa erakunde ordezkariekin aldez aurretik kontsultatu ondoren. Gizarteratze eta laneratze enpresen kasuan, esleitu daitezkeen kontratuak kontratu txikiak eta prozedura negoziatuak deritzenak dira.
- **Enplegua edukitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen laneratzea**, IX.2.: atala, hitzarmenak ezartzen du baldintza-orri administratibo partikularrek enpresa esleipendunari eskatuko diotela kontratatutako prestazioa betearaztean, gutxienez, enplegua edukitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen %20ko kopurua barne hartzeko konpromisoa hartzea.

Akordioak ezartzen du ere, salbuespenak kenduta, “lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten langabeen %20 kontratu-prestazioaren betetzean sartzeko ezintasuna enplegu-zerbitzu publikoek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek aurkeztutako lan-eskaintzari erantzuteko gaitasunik eza dela-eta edo ekoizpenzein antolaketa- alderdiengatik, alderdi teknikoengatik edo ekonomikoengatik behar bezala arrazoituta baldin badago bakarrik onartuko da. Kasu horietan, kontratuaren xede diren prestazioen tipologiari egokitzen bazaio, enpresa esleipendunak kontratuaren zenbatekoaren %5 gutxienez 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Lan Zentro Berezien Erregistroan edo abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Laneratze Enpresen Erregistroan inskribatutako enpresekin azpikontratu beharko du”.

- **Bestelako gogoetak:** horrez gain, akordioak kontratazio fase desberdinetan gizarte irizpideak sartzeari ahalbidetzen du.



6. Nola txertatu gizarte-klausulak kontratazio publikoan?

Hainbat modu daude gizarte-klausulak kontratazio publikoan txertatzeko. Jarraian, zerrenda bat dator eta horietako bakoitza zehatz-mehatz azaltzen da:

- a. Hitzarmenaren xedea definitzea.
- b. Merkatu erreserba, kontratu txiki eta prozedura negoziatuen bitartez.
- c. Lizitatuzaileak onartzeko fasea (kontratuaren xedearen arabera, kaudimen teknikoko baldintza gisa).
- d. Puntuazio fasea (balorazio irizpide gisa).
- e. Lehentasun irizpidea, baldintza-berdintasun kasuan.
- f. Betearazpen fasea (derrigortasun irizpide gisa).



a. Hitzarmenaren xedea definitzea

Kontratazio publikoari buruzko **legeriak ez du zehazten zer erosi behar duen herri-administrazioak, nola erosi behar duen baizik**. Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 74. artikulua adierazten duenez, hitzarmenaren xedeak “zehatz” izan behar du, eta Zuzentarau Komunitarioek ezartzen dute esleipen irizpideak hertsiki loturik egon behar direla eta proportzionalak izan behar direla kontratuaren xedearekiko.

Botere esleipendunak askatasun osoz erabaki dezake zein izan daitekeen bere beharretara hobekien egokitzen den kontratuaren xedea, betiere, diskriminazio ezako eta ondasun nahiz zerbitzuen zirkulazio libreko printzipioak errespetatzen badira. Horrek esan nahi du izaera sozialeko ezaugarriak txertatu daitzkeela kontratuaren xedean; gomendagarria da hori egitea, izan ere, kontratuaren balorazio fasean edo betearazpen baldintzetan gizarteratze irizpideak baliozkotzen ditu.

Adibidea: Getxoko Udala (2006)

BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK, PROZEDURA IREKIKO LEHIAKETAREN BIDEZ GETXON EHUN-BILKETA SELEKTIBOAREN ZERBITZUAREN ESLEIPENA ARAUTZEKO

1.- XEDEA:

Baldintza-orri hauen helburua da Getxoko udalerrian ehun-bilketa selektiborako lanak (xede horretarako jarri diren edukiontzien bitartez) kontratatzeke oinarritzat hartzea. Era berean, kontratuaren helburua laneratzeko zailtasunak dituzten edo baztertuak izateko arrisku egoeran dauden kolektiboen kontratazioa sustatu eta bultzatzea ere bada, Eusko Jaurlaritzak onartutako gizarte-bazterketaren kontrako martxoaren 22ko 12/98 Legean ezarritakoari jarraiki.

[...]

Halaber, eskatzaileek enpresaren helburua laneratzeko zailtasunak dituzten edo bazterketa arriskuan dauden pertsonen kolektiboak sustatu eta bultzatzea dela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztuko dute.



Adibidea: Leioako Elizateko Udala (2007)

BALDINTZA-ORRI TEKNIKO-ADMINISTRATIBOAK, ERABILITAKO EHUN-MATERIALA BILDU ETA BIRZIKLATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTENAK

1.- HITZARMENAREN XEDEA:

- Erabilitako ehun-materialaren bilketa, behar bezala berrerabiltzeko. Zerbitzuak edukiontziak jarri, garbitu eta mantentzea barne hartzen du. Edukiontziak, uneoro, hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteez arduratzen den enpresaren jabetzakoak izango dira. Horretaz gain, dagokion erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du.
- Laneratzeko zailtasunak dituzten edota bazterketa arriskuan dauden kolektiboak bultzatu eta indartzea, Eusko Jaurlaritzak onartutako 12/98 Legea, martxoaren 22koa, gizarte-bazterketaren aurkakoa.



Adibidea: Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea (2009)

KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIRAKO BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, BIZIKLETAK ETA HORIEI DAGOZKIEN EKIPOAK KONPONDU ETA MANTENTZEKO, "BIZIMETA" GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA KUDEATZEKO, BIZIKLETAK HORNITZEKO ETA BIZIKLETA-GUNEA INSTALATZEKO ETA URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN BARRUAN BIZIKLETA BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA ABIARAZTEKO BEHARREZKO EKIPAMENDUA, PROZEDURA IREKIZ (HAINBAT BALORAZIO IRIZPIDEREKIN)

I.- HITZARMENAREN XEDEA:

Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea (hemendik aurrea, UKZK) berau osatzen duten udalerrietan bizikleta bidezko garraio publikoko banakako zerbitzua ezartzeko prozedura baten baitan dago [...].

Era berean, hitzarmen administratibo honen bidez, lan mundura sartzeko zailtasunak dituzten edo bazterketa arriskuan dauden kolektiboak bultzatu eta sustatu nahi dira, gizarte-bazterketaren aurkako martxoaren 22ko 12/98 Legean aurreikusitakoari jarraiki [...].

Gisa horretan, zerbitzu hau bazterketaren aurka borrokatzeko beste tresna bat da, bai eta kolektibo erdeinatuenak laneratzeko ere.



Adibidea: Amurrioko Udala (2009)

HITZARMEN ADMINISTRATIBOA, HERRITARRAK INFORMATZEKO 010 TELEFONOA KUDEATZEKO ZERBITZURAKO

1.- HITZARMENAREN XEDEA:

Helburua Herritarrak Artatzeko Telefono bat sortzea da, alde batetik, herritarrak hurbiletik eta modu eraginkorrean artatzeko, euren arazoei irtenbide bat emateko, erantzuteko denbora hobetuz eta alferrikako joan-etorriak aurreztuz; eta, beste alde batetik, enpleguaren finkapena sustatu, bultzatu eta laguntzeko; Gizarte Zerbitzuetarako baliabide bat izaki, zerbitzuaren langileak bertatik hartuko dira, gizarteratze eta laneratzeko prozesu bat egite aldera.



Adibidea: Hondarribiko Udala (2009)

LEHIAKETA (PROZEDURA IREKIZ) ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA-ORRI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK, "KASINO ZAHARRA" JUBILATUEN ETXEA BERREGIN, TABERNA LEGEZTATU ETA SARBIDEAK HOBETZEKO

I. HITZARMENAREN EDUKIA

1.- HITZARMENAREN XEDEA:

Baldintza-orri hauen arabera gauzatzen den kontratuak "Kasino Zaharra" Jubilatuen Etxea berregin, taberna legeztatu eta sarbideak hobetzea du xede. Horretaz gain, gizarteratze eta laneratze proiektu bat gauzatzea ere badu helburu, txostenean jasotzen den dokumentazio teknikoari jarraiki eta Baldintza-orri hauen eta idatzitako proiektuaren arabera.



Adibidea: Getxoko Udala (2010)

KONTRATAZIO ADMINISTRAZIO BEREZIA ARAUTU BEHAR DUTEN BALDINTZA-ORRI TEKNIKOAK (PROZEDURA NEGOZIATUREN BITARTEZ, IRAGARKIRIK GABE) OSTALARITZAN LANERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK LANERATU ETA TOKIKO GARAPENA KUDEATZEKO -PRESTAKUNTZA ETA HAURRENTZAKO GUNEA GETXO KIROLAK/FADURAKO LOKALETAN

B. HITZARMENAREN XEDEA

1. –Ostalaritzan, lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzea – prestakuntza eta aisialdia Getxo Kirolak/Fadurako lokaletan

Enpresak, bere gizarte-helburuen artean, gutxienez, "bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea" jaso beharko du, hitzarmenaren xedearen parte gisa.

Zerbitzuak betearazteko, laneratzearen esparruan ekoizpen egitura espezialistak (laneratze enpresak kasu) eta abiarazi beharreko jarduera esparruetan, ostalaritzan eta esparru honetako prestakuntzan eta aisialdian eskarmentu handia daukatenak erabiliko dira.





b. Merkatu erreserba, kontratu txikien eta prozedura negoziatuen bitartez

Kontratuak esleitzean, merkatuan jarduten duten sektore sozialen aldeko diskriminazio positiboa egin daiteke.

Merkatu erreserba gizarte-klausula baten gehienezko adierazpidea da, izan ere, herri-administrazioari merkatuaren parte bat erreserbatzen dio, bai eta gizarteratze eta laneratze enpresei ere.

Zer dio legeriak?

Prozedura negoziatua eta kontratu txikia

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 122. artikulua. Kontratu txikiak zuzenean esleitu ahal izango dira [...] Kontratu txikiak direla joko da 50.000 eurotik beherakoak, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 18.000 eurotik beherakoak, baldin eta bestelako kontratuak badira, estatu mailako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 190. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 153. artikulutik 162. artikulura: prozedura negoziatua, kontratazio-organoak hautatutako lizitazio-tzaileari esleituko dio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, kontsulta hainbat hautagairi egin edo kontratuaren baldintzak haietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren.

Erreserbatutako kontratua Gizarteratze Enpresei ezarri ahal izango zaie, iragarkirik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, zenbatekoaren arabera (161.2). Obra kontratuak izango dira 200.000 € arteko kontratuak eta hornidurak, zerbitzuak edo kudeaketa zerbitzuak 60.000 € baino gutxiagoak badira.



Zer dio legeriak?

Europako Parlamentuko 204/18/CE Zuzentaraua, 19. artikulua: estatu ki-deek partaidetza erreserbatu ahal izango dute, kontratu publikoen esleipen prozeduretan, babestutako tailerrentzat edota babestutako enplegu programen baitan euren betearazpena erreserbatu ahal izango da, eragindako langile gehienak minusbaliotasunen bat duten pertsonak direnean.

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 7. xedapen gehigarria: kontratuak esleitzeko prozeduran parte hartzeko aukera enplegu-zentro berezientzat erreserbatzeko modua egongo da, edo kontratu horiek babestutako enplegu-programetan gauzatzeko erreserbatu, baldin eta langileen %70 gutxienez minusbaliotasunen bat duten pertsonak badira.

Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 Ebazpena, IV: minusbaliotasunen bat duten pertsonen lanerako zentro berezientzat, eta gizarteratze eta laneratze enpresentzat gordetako kontratuak edo babestutako lan programen esparruan.

[...] Aipatutako erreserbaren kopuru ekonomiko orokorra eta sektoriala urtero finkatuko du Ogasun eta Herri Administrazio Sailak.

[...] Kontratu txikien edo kopuruaren arabera negoziaturiko prozeduren birtartez bakarrik aplikatuko da erregistraturiko gizarteratze enpresentzako utzitako erreserba.



b.1. Prozedura negoziatua

Adibidea: Getxoko Udala (2007)

BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, IRAGARKIRIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUZ, BIZIKLETAK DOHAINIK MAILEGATZEKO ZERBITZUA ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK SUSTATU ETA BULTZATZEKO (2007. URTEA).

KONTRATUA ESLEITZEKO MODUA

16. artikulua – Esleipen prozedura eta modua

Hitzarmen hau prozedura negoziatuz esleituko da [...].



Adibidea: Getxoko Udala (2010)

BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, IRAGARKIRIK GABEKO PROZEDURA IREKIZ, KONTRATAZIO ADMINISTRATIBO BEREZIARENTZAT, OSTALARITZAKO LAN MUNDURA SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK LANERATZEKO ETA TOKI GARAPENAREKO [PRESTAKUNTZA ETA UMEENTZAKO GUNEA GETXO KIROLAKEKO (FADURA) LOKALETAN, ZERBITZU HAUEK USTIATZEKO]

KONTRATUA ESLEITZEKO MODUA

17. artikulua – Prozedura eta esleitzeko modua

Kontratu hau prozedura irekiz esleitzeko da, iragarkirik gabeko prozedura negoziatuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 153 eta 162. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, 161.2. artikulua 159. artikuluari dagokionez jasotakoarekin bat egiten duelako.



b.2. Kontratu erreserbatua

Adibidea: Burlatako Udala (2008)

KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, BURLATAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA (ELZ) KUDEATZEN LAGUNTZEKO, KONTRATU PUBLIKOEI BURUZKO 6/2006 FORU LEGEKO 9. ARTIKULUAN EZARRITAKO ENPLEGURAKO ZENTRO BEREZIEI ETA GIZARTERATZE NAHIZ LANERATZE ZENTROEI KONTRATUAK ERRESERBATZEKO.

BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBOAK ETA TEKNIKOAK

4.- ESLEIPEN PROZEDURA

[...] Era berean, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 9. artikulua zehaztutako izaera sozialeko erakundeentzako kontratuen erreserba aplikatuko zaio prozedurari. Horrenbestez, lizitazio prozeduran soilik parte hartu ahal izango dute langile gehienak minusbaliatuak dituzten enpresek, bai eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea helburu dutenak ere.

5.- KONTRATATZEKO AHALMENA

[...] Kontratuen erreserba izaki, enpresa lizitatzailiek egiaztatu egin beharko dute legez Gizarteratze eta Laneratze Zentro edota Enplegu Zentro Berezi gisa baimenduta daudela.





c. Lizitatuak onartzeko fasea

(kontratuaren xedearen arabera, kaudimen tekniko baldintza gisa)

Kontratuan laneratzeko osagaia garrantzitsua bada, izaera sozialeko kaudimen tekniko eta profesionala eska daiteke edo kaudimen tekniko atalean, eskakizunak edo prestakuntzak gehitzea. Izan ere, kontratuaren berezitasunak eta edukiak berau aintzat hartzen badute, kaudimen tekniko zehatza eskatuko da. Kasu horietan, gizarte-esparru jakin batean egiaztatutako esperientzia eskatzea logikoa izateaz gainera, derrigorrezkoa ere bada, izan ere, kontratazio organoak ziurtatu egin behar du enpresa esleipendunak behar bezala emateko baldintzak betetzen dituela.

Zer dio legeriak?

EBko Batzordearen jakinarazpen interpretatiboa, 2001/10/15: Kontratuak gizarte-arloko trebezia bereziak behar direla eskatzen badu, zilegizkoa da esperientzia jakin bat eskatzea, gaitasun irizpide gisa, bai eta hautagaien kaudimena erakusteko ezagutza teknikoak izatea ere.

Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 ebazpena, VI.4. Esperientzia, ezagutzak eta baliabide teknikoak (Administrazio-baldintza berezien agiriaren azala).

1.– Kontratuaren xedek berriazko gaitasunak eskatzen baditu gizartearen alorrean, emakume eta gizonen berdintasunarenean edota beste herri-politika batzuetan, administrazio-baldintza berezien agiriaren azalean betekizun gisa eskatuko da eskarmentu zehatza izatea gaitasun tekniko edo profesional bezala. Ezagutza eta baliabide teknikoak eskatuko dira hori betetzea eskatzen duten gaitan, Herri-administrazioen Kontratuen Legearen 17.etik 19.era bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.



Adibidea: Amurrioko Udala (2005 – 2008)

BALDINTZA-ORRI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK, LEHIAKETA BIDEZKO PROZEDURA NEGOZIATUZ, AMURRIOKO HERRITARRAK INFORMATZEKO 010 TELEFONOA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESLEIPENA ARAUTUKO DUTENAK

KLAUSULAK

7.- ESKAINTZAK: MODUA ETA EDUKIA

7.1.- Enpresa lizitatzailleak:

Eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek (espainiarrak edo atzerriarrak), euren jarduera edo helburua kontratuaren helburuarekin zerikusi zuzena baldin badu, jarduteko gaitasuna badute, kaudimen tekniko edo profesionala dutela ziurtatu, eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Bere estatutuen helburuen artean, bazterketa arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea badago edota lan mundura sartzeko zailtasun bereziak badituzte.
- Enpresaren soberakina ekoizpen egiturak hobetzera edo gizarteratzearekin zein laneratzearekin erlazionatutako jarduerak sustatzera bideratzea, inolako etekin banaketarik egin gabe.



Adibidea: Hondarribiko Udala (2009)

LEHIAKETA (PROZEDURA IREKIZ) ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA-ORRI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK, "KASINO ZAHARRA" JUBILATUEN ETXEA BERREGIN, TABERNA LEGEZTATU ETA SARBIDEAK HOBETZEKO

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan kaudimen ekonomikoa, teknikoa edo profesionala [...] dutela ziurtatzen duten pertsona natural edo juridikoek [...] parte hartu ahal izango dute. Kaudimena egiaztatu eta ebaluatu egingo da, 18. klausulako e) eta f) idatz-zatietan ezarritako bitartekoen arabera.

18. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

"A" gutun-azalak "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" azpтитulua izango du, eta hurrengo dokumentuak izango ditu [...]

e) Pertsonen gizarteratzeari eta laneratzeari buruzko eta lan munduko kolektibo erdeinatuiei buruzko gaitasun teknikoa. Gaitasuna gizarteratze enpresen erregistro ofizial batean izena emanez egiaztatu ahal izango da.



Adibidea: Aviléseko Udala (2009)

AVILÉSEKO UDALEKO KONTRATU PUBLIKOETAN IRIZPIDE SOZIALAK SARTZEKO INSTRUKZIOA

V. KAPITULUA – KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

27. artikulua. – Kaudimena, gizarte-esparruan

Kontratuaren xederako gizarte-esparruko gaitasun bereziak behar badira, kaudimen teknikoko edo profesionaleko baldintza gisa dagokion esperientzia, aipatutako gizarte esparruan ezagutza eta bitarteko teknikoak zein giza bitartekoak eskatuko dira, SPKko 67. artikulutik 69. artikulura bitartean ezarritakoari jarraiki.

29. artikulua – Kaudimena, gizarteratzeko eta laneratzeko kontratuetan

1.- Kontrata gauzatuko duten langileen artean gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen %30 (gutxienez) kontratatzeko baldintza betetzea ezartzen denean, gizarte-esparruan kaudimen tekniko edo profesionala izatea eskatuko da, artikulua honetan xedatzen denaren arabera.



Adibidea: Aviléseko Udala (2009)

PRESKIPZIO TEKNIKOKO BALDINTZA-ORRIAK, IKASTETXE PUBLIKOETAKO ETA UDAL JABETZAKOAK DIREN LORATEGIZ HORNITUTAKO BESTELAKO AZALERETAKO GUNE BERDEAK MANTENDU ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZUAREN BITARTEZ, GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ARAUTUKO DITUZTENAK.

6. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

6.1. – Kaudimen tekniko edo profesionala edota, hala badagokio, sailkapena.

Kontratuaren helburua eta edukia aintzat hartuz, proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte legez eraturako merkataritza-sozietateek edota sozietate kooperatiboek, eremu horretan eskumena daukaten erakunde autonomikoei behar bezala sailkatuta, kontratuaren xede den jardueraren ekonomikoak gauzatzen badute.

Halaber, lizitazioa egiten duen enpresak edota berau sustatzen duten enpresek gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin egiten den lanean kaudimen tekniko edo profesional zehatza egiaztatuko beharko dute. Hori gisa honetan egin daiteke:

- Azken 3 urteetan egindako kontratuaren helburuaren antzekoa den zerbitzu nagusien edo lanen zerrenda [...]. Gutxienezko baldintza: aipatutako denbora tartean egindako zerbitzua edo lana berariazko adierazpen arduratsuen bitartez egiaztatuko da.
- Kontratuaren betearazpenean parte hartuko duten enpresen barruan edo kanpoan dauden langile teknikoak edo unitate teknikoak adieraztea, gizarteratzearekin erlazionaturako titulazioa eta sei hilabeteko (gutxienez) esperientzia profesionala egiaztatuz





d. Puntuazio fasea (balorazio irizpide gisa)

Lizitazioan parte hartuko duten enpresak onartu ondoren, eskaintzen balorazioa baldintza tekniko eta ekonomiko abantailatsuenen arabera egingo da.

Zer dio legeriak?

Europako Parlamentuko 2004/18/CE Zuzentaraua, 46. artikulua aintzat hartuz: tratu berdintasuna bermatze aldera, esleipen irizpideek eskaintzak erkatu eta modu objektiboan ebaluatzea ahalbidetu behar dute. Baldintza horiek betez gero, hau da, esleipen irizpide ekonomiko eta kualitatibo jakin batzuk, ingurumen betebeharrak betetzeari buruzkoak kasu, botere adjudikatzaileak eragindako hartzailearen beharrak asetzea ahalbidetuko da, kontratuaren zehaztapenetan definitu bezala. Baldintza horietan, botere adjudikatzaileak betekizun sozialak betetzera zuzenduriko irizpideek arautuko dituzte (kontratuaren xede diren lan, hornidura eta zerbitzuen onuradun edo erabiltzaile diren bereziki erdeinatutako biztanleen mailari dagozkionak).

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 134. artikulua. Eskaintzak baloratzeko irizpideak: 1. Proposamenak balioesteko eta ekonomiaren alde-tik eskaintzarik abantailatsuenaren zein den zehazteko, kontratuaren xede-ari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan; esate baterako, kalitatea, prezioa, obra erabiltzeari edo zerbitzua emateari dagozkion ordain-sariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa gauzatzeko edo entregatzeko epea, erabiltzeko kostua, ingurumen-eragarkariak edo betekizun sozialei erantzutearekin zerikusia dutenak (betekizun sozial horiek bat etorri behar ote duten kontratuaren zehazpenetan definitutako beharrezanekin, kontratatu behar diren prestazioen erabiltzaile edo onuradun izango diren gizarte-maila bereziki behartsuenen beharrezanekin, alegia) [...] Esleitzeko irizpide bakar bat erabiltzen denean, irizpide hori, nahitaez, preziorik baxuena izango da.

Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 Lehiaketa VII.I Izaera sozialeko esleipen irizpideak: kontratuaren xede diren prestazioen onuradun edo erabiltzaileak bereziki kalteturiko biztanle-kategoriak badira, esleipenerako irizpide gisa hartuko dira biztanle-kategoria horiek berezkoak dituzten beharrei erantzuten dieten gizarte-eskakizunak betetzearekin uztarturiko ezau-garriak.



Adibidea: Aretxabaletako Udala

BALDINTZA-ORRI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK, ARETXABALETAKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN PRESTAZIOA EGITEKO ETA LAN MERKATURA SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK GIZARTERATZEKO LEHIAKETA IREKIA ARAUTUKO DUTENAK.

II. TITULUA. KONTRATUA ESLEITZEKO MODUA

15.- Lehiaketaren esleipen irizpideak

2.- Langileen ezaugarriak eta baliatu beharreko makinak: 20 puntu.

- Kontratazio berrien gaineko politika, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, emakumeak, etorkinak...
- Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzea. Enpresak konpromisoa hartuko du kontratua bazterketa arriskuan edo egoeran dauden langileek betearaz dezaten [...].
- Puntuazioaren portzentajea, kontratua betearaziko duten gutxienez langileen %20 ares-tian aipatutako kolektiboetako bada [...].



Adibidea: San Marcoseko Mankomunitatea

BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, GARBERAKO GARBIGUNEKO ARRETA ZERBITZUA ETA KUDEAKETA KONTRATATZEKO

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

15.- Esleipen prozedura

3. irizpidea. Hobekuntzak

[...] Atal honetan, berrerabiltzeko espazioa hobetzea planteatzen duten eskaintzak baloratuko dira, baita ura, energia eta gizarteratzeko zein laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboekin erlazionatutakoak ere. [...]

3.4 Gizarteratzea

15 puntu emango zaizkie lan bazterketa arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzeko enpresa baten bitartez zerbitzua egingo dela egiaztatzen duten enpresei, baita okupazio zentro bereziei ere.





e. Lehentasun irizpidea (baldintza berdintasun kasuan)

Legeriak lehentasunak ezartzen ditu termino abantailatsuenetan berdintasunak dituzten eskaintzetan. Garrantzitsua da legeriak Gizarte Enpresak aipatzea, baina praktikan ez da aplikatzen, izan ere, ezohikoa izaten da enpresa lizitatzailleen artean berdinketarik egotea.

Zer dio legeriak?

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 6. xedapen gehigarria: Plantillan minusbaliotasunen bat edo bazterketa soziala jasaten duten pertsonak dauzkaten enpresekin eta irabazi asmorik gabeko entitateekin kontratuak egitea.

2. Era berean, kontratuen esleipenean lehentasuna ezarri ahal izango da, beren-beregi bazterketa soziala jasaten duten pertsonak laneratzen eta sustatzen jarduten duten enpresek aurkeztutako proposamen ekonomiko abantailatsuenaren alde [...] eta lizitatzailleak lanpostuen ehuneko 30 gutxienez honako kolektibo hauetako pertsonekin kontratatzeke konpromiso formala hartzea baloratuko da.

Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 Ebazpena, VIII. Jarraibide hauen aplikazio-eremuan barne hartutako kontratazio guztietan aplikatuko dira plantillan %2tik gorako ezgaitasuna duten langileak dituzten enpresek, berariaz gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak sustatu eta laneratzen dituzten enpresek, Bidezko Merkataritzako Erakunde gisa aitortutako erakundeek eta, prestazio sozial edo asistentzialen inguruko kontratuen kasuan, irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenen alde kontratuen legerian aukerakotzat ezarritako esleipeneko lehentasunak.

Lehentasunak aplikatzeko, enpresa edo erakunde horiek eta beren proposamenek legeria horretan lehentasuna aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte; besteak beste, proposamen horiek esleipenerako oinarri gisa balio duten irizpideen ikuspegitik onuragarrienak direnen parekoak izatea.



BALDINTZA-ORRIAK, www.udalsarea12.net ORRIALDEA IDATZI, KARGATU ETA EDUKIAK MANTENTZEKO

LIZITAZIO PROZESUA

ESLEIPEN LEHENTASUNAK

Eskaintzarik abantailatsuen zehaztu ondoren eta esleipenerako proposamena gauzatu aurretik, berdinketa dagoen kasuetan (berdinketa egongo da balorazioan 5 puntu baino gutxiagoko aldea dagoenean), Ihobe, S.A.k hurrengo esleipen lehentasunak ezarriko ditu:

- Plantillan, %2 baino gehiagoko minusbaliotasuna duten pertsonak badaude.
- Bazterketa egoeran dauden pertsonak beren-beregi sustatzea eta laneratzea helburu duten enpresak.
- Bidezko Merkataritzako Erakunde gisa aintzatetsitako erakundeak.

Lehentasuna ezartzeko, ezaugarri bat baino gehiago biltzen dituen proposamenak izango du lehentasuna. Eman litezkeen berdinketetan, lehentasunezko esleipen irizpidean puntuaziorik onena duenaren alde egingo da, ezarritako lehentasun ordenaren arabera. Halako jarraibiderik ez balego, zozketa bidez egingo da.

ABEEn kasuan, lehentasunak lizitatzailerako bakoitzaren portzentajearen arabera izango dira.





f. Betearazpen fasea (derrigortasun irizpide gisa)

Eskaintzarik abantailatsuena zehaztu ondoren, kontratua esleituko da eta irizpide sozialak txertatu daitezke betearazpen baldintzetan.

Zer dio legeriak?

Europako Parlamentuko 2004/18/CE Zuzentaraua, 26. artikulua: botere esleipendunek kontratuaren betearazpenarekin zerikusia duten baldintza bereziak eska ditzakete, betiere, komunitate zuzenbidearekin bateragarriak baldin badira eta lizitazio iragarkian edo baldintza-orrietan zehazten badira. Kontratua betearazteko baldintzak, bereziki, gizarte nahiz ingurumen izaerakoak izan daitezke.

Batzordearen jakinarazpen interpretatiboa, 2001eko urriaren 15a: bereziki, betearazpen fasean, kontratu publikoa gizarte-helburuak bilatzea sustatzeko tresna izan daiteke botere esleipendunentzat. Klausula horiek pertsonen kategoria jakin batzuen aldeko neurriak eta enplegurako ekintza positiboak bil ditzakete.

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea, 102. artikulua: kontratua gauzatzeko baldintza bereziak. "Kontratazio-organismoek kontratua gauzatzeari buruzko baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte... Kontratua gauzatzeko baldintza horiek, bereziki... gizarte-kontuei buruzkoak izan ahalko dira, lan merkatuan zailtasun handiak dituzten pertsonen enplegua sustatze aldera".

Eusko Jaurlaritzaren 6/2008 Ebazpena, IX. II. Betearazpen baldintza bereziak/Lana lortzeko zailtasun berezia duten pertsonak laneratzea: (...) kontratatutako prestazioa betetzeko lana lortzeko zailtasun berezia duten langabeak (%20 gutxienez) sartzeko konpromisoa aginduko dio enpresa esleipendunari. Laneratze-portzentajea enpresa kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek kontratua betetzeko behar duten guztizko langile-kopuruari dagokionez zenbatuko da.

Aurreko baldintza eman ezin daitekeen kasuetan, subrogazioak edota kontratazio berriak behar direlako, enpresa esleipendunak, gutxienez, abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak arautzen duen Gizarteratze Enpresen Erregistroan erregistratutako enpresekin kontratuaren zenbatekoaren %5 azpikontratatu beharko du (...).



Adibidea: Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea (2009)

KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIARENTZAKO BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, BIZIKLETAK ETA HORIEI DAGOZKIEN EKIPOAK KONPONDU ETA MANTENTZEKO, "BIZIMETA" GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA KUDEATZEKO, BIZIKLETAK HORNITZEKO ETA BIZIKLETA-GUNEAK INSTALATZEKO ETA URIBE KOSTAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN BARRUAN BIZIKLETA BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA ABIARAZTEKO BEHARREZKO EKIPAMENDUA, PROZEDURA IREKIZ (HAINBAT BALORAZIO IRIZPIDEEKIN).

2. KLAUSULA- IZAERA SOZIALEKO KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK. Lana lortzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen laneratzea.

[...] Aurreikusitako gizarte-izaerako baldintza bereziei kontratu betekizun funtsezkoak esleitzen zaizkie.[...]

1. Gizarte-izaerako kontratua betearazteko baldintza berezi gisa, prestazioa betetzeko lana lortzeko zailtasun berezia duten langabeak (%20 gutxienez) sartzeko konpromisoa aginduko dio enpresa esleipendunari. Laneratze-portzentajea enpresa kontratistak eta, hala bada, gogio, azpikontratistek kontratua betetzeko behar duten guztizko langile-kopuruari dagokionez zenbatuko da.



Adibidea: Vitoria-Gasteizko Udala 2010

BALDINTZA-ORRI ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK ZERBITZUEN KONTRATUENTZAT. LIZITAZIOA PROZEDURA IREKIZ EGINGO DA.

XEDEA: VITORIA-GASTEIZ HIRIKO GUNE BERDEAK KONTSERBATZEKO LANAK

37. artikulua. Kontratua betearazteko baldintza bereziak

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa betearazteko konpromisoa hartu du, 1. erloaren 5. zenbakidun azpieroaren (udako ureztatze-lanak) barruan, lana lortzeko zailtasun berezia duten langabeak (gutxienez %20) sartzeko. Laneratze-portzentajea enpresa kontratistak eta, hala bada, gogio, azpikontratistek kontratua betetzeko behar duten guztizko langile-kopuruari dagokionez zenbatuko da.





7. Gehiago jakiteko

Gidaliburuak

Lesmes, S. (2007): *Cláusulas sociales. Contratación Pública e Inserción Social*, Lanegi Proiektua/Berriztapen Elkarte. Bilbao.

Lesmes, S. eta Rodríguez, L. (2010): *Guía de contratación pública sostenible. Incorporación de criterios sociales*, IDEAS, Madril.

Lesmes, S. (2008): *Informe de buenas prácticas para la implementación de cláusulas sociales*, UAFSE (Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa), Madril.

IHOBE (2008): *Manual práctico de contratación y compra pública verde: modelos y ejemplos para su implantación por la administración pública vasca*, IHOBE, Ingurumen kudeaketarako sozietate publikoa, Vitoria-Gasteiz.

Askoren artean, *Guía de comercio justo para las administraciones públicas vascas*, Bakeaz, Emaús Gizarte Fundazioa eta Setem Hego Haizea, Bilbao.

Gizarte-klausulak sartzeko erreferentziako web orrialdeak

www.clausulassociales.org

Gizarte-klausulei, erosketak publiko iraunkorrari eta gizarte-erantzukizunari buruzko informazio ugari du.

www.catalogosocial.net

Euskal Herriko gizarteratze enpresen eta enpresa solidarioen direktorioa, hainbat enpresa bilatzeko, sektore eta probintzien arabera. Kalitatea, profesionaltasuna eta hurbiltasuna eskaintzen dituzten enpresak dira garatzen dituzten lanetan, jarduera eta aberastasun ekonomikoa sortzen dute eta ingurumenarekiko eta pertsonetikiko konpromiso batetik egin ohi dute. Gisa horretan, gizartean, kontratazioak eta zerbitzuen nahiz ondasunen erosketak sustatzen dituzte, irizpide etiko, arduratsu eta solidarioekin.

www.gizatea.net

Euskal Herriko gizarteratze enpresen web orrialdea. Gizarte-klausulei, irizpide sozialak txertatzeko EAEko baldintza-orriei eta alor horretako erreferentziako legeriari buruzko informazioa dauka, bai eta elkartutako gizarteratze nahiz laneratze enpresei buruzkoa ere.

www.faedei.org

Gizarteratze nahiz Laneratze Enpresen Enpresa Elkarteen Federazioaren web orrialdea. Estatu mailako gizarte-klausulei buruzko informazioa dauka.

www.comprapublicaetica.org

IDEASen WEB orrialdea –Ekonomia alternatiboko eta solidarioko ekimenak–, bidezko merkataritzari, ekonomia solidarioari eta kontsumo arduratsuari buruzko informazio askorekin.

www.economiasolidaria.org

Sektore sozial, ekonomiko, politiko eta partikular guztiak elkartu, hausnartu, parte hartu, atxiki eta komunikatzeko zuzenduriko espazioa. Bertan, egitura ekonomiko solidario ez baztertzailerei buruz jarduten dute.